

97/2021 FORU AGINDUA, urriaren 29koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, eskola-garraioa arautzeko foru aginduaren proiektua prestatzeko prozedura hasten duena.

Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 13ko 102/2017 Foru Aginduaren bidez arautzen dira eskola-garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola-jantokirako banakako laguntzak Nafarroako Foru Komunitatean.

Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berri-tzaile eta aurrerakoirako 2019-2023 aldirako programa akordioan honako hau zehazten da 3. atalean (Programaren gutxi-eneko edukiak), 3.1. azpiatalean (Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna), 50. puntuan: "Garraioa eskubide oso gisa aitortzea ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta OLHko ikasleei. Salbuespenezko neurriak hartzea beren ezaugarri-engatik hala behar duten herrietan".

Garraioari buruz indarrean dagoen araudia berrikusi beharra dago aurreikuspen horretara egokitzeko, baita disfuntzionalak direla frogatu diren alderdiak hobetzeko ere.

Hori guztia bat etorri Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin,

AGINTZEN DUT:

1.- Eskola-garraioa arautzeko foru aginduaren proiektua egiteko prozedura hasia.

2.- Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzua izendatzea hura pres-tatu eta izapidetzeko ardura duen organo.

3.- Foru agindu hau igortzea Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusira, Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusira, Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzura eta Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, behar diren ondorioak izan ditza.

Iruñean, bi mila eta hogeita bateko urriaren ogeitabederantzian.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegi